

TURISMOAREN KONTU SATELITEA 2010-2013(a)

Handitu egin da turismoaren pisua Euskal AEko ekonomian; 2013an BPGren %5,8 zen

Turismo hartzailea urteko batez besteko %3,5eko tasaz handitu zen 2010-2013 aldian

Euskal AEn 2013an egindako turismo-gastua 3.809 milioi izan zen, BPGren %5,8, Eustaten datuen arabera. INEren azken datuen (2012) arabera, turismoa espainiar BPGren %10,9 zen.

2010etik lau hamarrenez gehitu da turismoaren ekarpena Euskal AEko ekonomiara; goia, 2013an. Turismo hartzaileagatik da; alegia, Euskal AEn estatuko gainerako pertsonak edo atzerritarrek egindako gastuagatik.

Turismo hartzaileak Euskadin eginiko gastuak goia (%49,8) 2013an jo zuen. 2010-2013 artean turismo hartzailearen ekarpena ehuneko 2,5 puntuz gehitu da.

Euskal AEn bizi diren turista eta txangolariak, enpresek eta euskal administrazio publikoek eginiko gastu turistikoa %50,2 da, 2010etik aurrera pisua galduz.

1. Taula. Euskal AEko BPGra turismoak egindako ekarpena. Balio absolutua eta portzentajea. Uneko prezioak. 2010-2013. Milioika eurotan

	2010	2011	2012	2013(a)
Turismoko gastua, guztira	3.619	3.706	3.800	3.809
Turismo hartzailea	1.713	1.782	1.876	1.898
Turismoaren beste osagai batzuk	1.906	1.924	1.924	1.911
Turismoko gastua, guztira (%)	100,0	100,0	100,0	100,0
Turismo hartzailea	47,3	48,1	49,4	49,8
Turismoaren beste osagai batzuk	52,7	51,9	50,6	50,2
BPGaren (m.p.) gaineko ehunekoa				
Turismoko gastua, guztira	5,4	5,4	5,7	5,8
Turismo hartzailea	2,6	2,6	2,8	2,9
Turismoaren beste osagai batzuk	2,8	2,8	2,9	2,9

Iturria: EUSTAT. Turismoaren kontu satelitea

Oinarria 2010

(a) Aurrerapena

Gastu turistikoan azpimarragarria da txangolariak egin (bidaiariak ez du gauda etxetik kanpo egiten), bai Euskal AEko egoiliarrena, bai Estatuko gainerakotik eta atzerritik etorritakoek egin; atzerritarrena bereziki garrantzitsua da Gipuzkoan, Frantzia bertan izanik.

Euskal AEn saldo turistikoa negatiboa ohi da; hobera egin du (330 milioitan) 2010-2013an

Euskal AEn azpimarragarria da kanporako turismoaren garrantzia (euskal hiritarren erkidegotik kanporako bidaia eta txangoak), hartzailearen (erkidegoan bizi ez direnen

bidaia eta txangoak Euskadin zehar) aldean; horrek 2.169 milioiko defizita ekarri du 2013an, BPGren %3,3.

2010-2013an saldo hori gutxituz joan da; izan ere kanporako turismoa gutxitu eta hartzailea gehitu egin dira. Turismo hartzailea urteko batez besteko %3,5eko tasaz handitu zen aipatu aldian, eta kanporakoa 1,2koaz gutxitu.

2. taula. Euskal AEaren munduko gainerako tokietarako turismo-fluxuen saldoa, osagaiaren eta urtearen arabera. BPGaren (m.p.) gaineko balio absolutua eta ehunekoa. Uneko prezioak (a). 2005-2013

	2010	2011	2012	2013(a)
Turismo hartzailea	1.713	1.782	1.876	1.898
Turismo igorlea	4.211	4.262	4.177	4.067
Turismo-saldoa	-2.498	-2.480	-2.301	-2.169
BPGaren (m.p.) gaineko ehunekoa				
Turismo hartzailea	2,6 €	2,6 €	2,8 €	2,9 €
Turismo igorlea	6,2 €	6,3 €	6,2 €	6,2 €
Turismo-saldoa	-3,6 €	-3,7 €	-3,4 €	-3,3 €

Iturria: EUSTAT. Turismoaren kontu satelitea

Base 2010

(a) Aurrerapena

Gastu turistikoan, 2010 eta 2013 artean, Bizkaiak ehuneko 0,7 puntu eta Arabak 0,5 irabazi dute, Gipuzkoaren kalterako

Historikoki, Euskal AEra turistak Donostiara eta inguruko kostaldera etorri izan dira. Bilbo itxuraldatu egin da, turismo-gastuari Bizkaia osoan eragin diolarik. 2006an Bizkaia Gipuzkoaren gainetik jarri zen, aurreneko aldiz, eskari turistikoaren balio absolutuan. Geroztik, pisu hori etengabe handitu da, %43,5 zen 2010ean, %44,2 2013an.

Azken urteetan Bizkaiak pisua hartu du Gipuzkoaren kalterako eta azken ekitaldian, Arabarenerako.

Halere, Gipuzkoan du turismoak BPGrekiko portzentajerik handiena. 2013an, BPGren %7,2 zen; Bizkaian %5,0 (historiako gorena); Araban %5,2.

Azken urtean turismo-gastua %1,3 gehitu da Bizkaian, %0,4 Gipuzkoan. Araban %3,4 jaitsi.

3. taula: Turismoak euskal ekonomiari egindako ekarpena, lurralde historikoaren eta urtearen arabera. BPGaren (m.p.) gaineko balio absolutua eta ehunekoa. Uneko prezioak (a). 2005-2013

	2010	2011	2012	2013(a)
TURISMOKO GASTUA				
Euskal Autonomia Erkidegoa	3.619	3.706	3.800	3.809
Araba/Álava	508	543	572	552
Bizkaia	1.573	1.623	1.662	1.684
Gipuzkoa	1.538	1.540	1.566	1.573
EHUNEKOAK				
Euskal Autonomia Erkidegoa	100,0	100,0	100,0	100,0
Araba/Álava	14,0	14,7	15,1	14,5
Bizkaia	43,5	43,8	43,7	44,2
Gipuzkoa	42,5	41,5	41,2	41,3
BPGaren (m.p.) gaineko ehunekoa				
Euskal Autonomia Erkidegoa	5,4	5,4	5,7	5,8
Araba/Álava	4,8	4,9	5,3	5,2
Bizkaia	4,5	4,7	4,9	5,0
Gipuzkoa	6,9	6,9	7,1	7,2

Iturria: EUSTAT. Turismoaren kontu satelitea

Base 2010

(a) Aurrerapena

Informazio gehiago:

[Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

[Más notas de prensa sobre las Cuentas Satélites del Turismo](#)